



ARGAZKI RALLYA IRUÑEA
Arantza Jabato



urteko memoria 2016

NAFARROAKO
GIZAKIA
HELBURU



PROYECTO
HOMBRE
NAVARRA

AURKIBIDEA

Edukien aurkibidea

1

AGURRA
1. Or

2

Nafarroako Gizakia
Helburu Fundazioa
2. Or

3

Tratamendu-programak
eta -zerbitzuak
7. Or

4

SUSPERTU
Nerabeei eta haien familiei
laguntzeko programa
17. Or

5

Tuterako eta erriberako
artatze-zentroa
20. Or

6

Eskariaren
bilakaera
25. Or

7

Ikerkuntza,
irakaskuntza eta
prestakuntza
26. Or

8

Zerbitzu orokorrak
eta sostengu-
zerbitzuak
30. Or

9

Boluntariotza
34. Or

10

Datu ekonomikoak
eta diru-laguntzak
37. Or

11

Fitxa teknikoa
39. Or

12

XXV. urteurreneko
ekitaldiak
40. Or

Memoria hau egiteko erabili diren argazkiak "Nafarroako Gizaki Helbururen 25 urteurreneko" Fotografia Rallyan hartu ziren.

© Nafarroako Gizaki Helburu
Diseinua eta maketazioa: Exea Comunicación
Inpresioa: Gráficas Iratxe
Lege Gordailua: NA – 1057/1992

Agurra 1

Agurra eta aurkezpena

Memoria honekin, bukaera eman nahi diogu Nafarroako Gizakia Helbururen historian oso garrantzitsua izan den urte bati. Ekitaldiz betetako urtea izan da, eta gure 25. urteurrenaren ospakizunek honako hauetarako aukera eman digute: atzera begiratu eta emaitzen azterketa egin dugu; hunkitu egin gara gure erakunderako oso esanguratsuak izan diren pertsonekin berriz topo egitean eta haiek egindako ekarpena aitortzean; maitasunez oroitu gara dagoeneko gurekin ez daudenekin, eta Nafarroako gizarte osora hurbildu gara beren konfiantza eskertzeko eta droga-kontsumoarekin eta bestelako mendekotasunekin lotutako arazoekiko duen sentikortasuna berresteko.

25 urte hauetan, mendekotasun-arazoak ziztuzten pertsona askori eta haien familiei itxaropena ematen saiatu gara; haien sufrimendu ikaragarria eta adore falta gorabehera, ez dute etsi eta, gure ondoan, borrokan segitzeko indarra lortu dute.

Mende laurden honetan hazi ere egin gara erakunde gisa, eta gizarte-arazo horren ondorioek ukitzen dituzten pertsonen beharrei erantzuna emateko gaitasuna hobetu dugu. Azken urteotan, halaber, helduengan arazoak sortzen dituzten joko forma berriei ere arreta ematen diegu, baita nerabeengan agertzen den komunikazio-teknologiaren eta jokoen erabilera kaltegarriari ere.

Eta hori dena aurrera begiratzeari utzi gabe, etorkizunak desafio garrantzitsuak baitakarkaz kigu, 2017-2020 Plan Estrategikoarekin lotuak. Besteak beste, gure zerbitzuak etengabe hobetu nahi ditugu, adibidez: tratamendu anbulatorioaren eredu trinkoagoa martxan jarri; jokoarekin lotutako arazoak prebenitzeko eta tratatzeko dagoen eskaera gero eta handiagoari modu eraginkorrean erantzun; gure Komunitate Terapeutikorako eraikin berria egiteko proiektua behin betiko ebatzi, eta instituzioekin, erakundeekin eta enpresa laguntzaileekin lankidetzeta-hitzarmen berriak egin.

Hala, ilusio berriekin eta Nafarroako gizarteari zerbitzu emateko betiko gogoekin aurre egiten diogu gure bigarren mendeko laurdenari. Argi dugu lan hori ez litzatekeela posible izango pertsona askoren konpromiso solidarioerik gabe, beren hoberena, beren denbora, dirua eta jakintza emateko prest baitaude denon artean itxaropenerako espazio bat sortzeko.

2 NAFARROAKO

Gizakia Helburu Fundazioa

NAFARROAKO
GIZAKIA
HELBURU



PROYECTO
HOMBRE
NAVARRA

IZAERA

Gizakia Helburu Fundazioa 1990ean sortu zen heroinaren krisiak eta honen ondorioak nabarmen baldintzatutako testuinguruan eta Nafarroan drogekiko menpekotasunak kaltetutako pertsonak tratatzearen.

Iruñea eta **Tuterako Caritas Diozesarrak** bultzatua eta **voluntario** mordo baten laguntzaz, zeintzuek 1991n Nafarroan Gizakia Helbururen egoitza irekitzea lortu zuten. Ondoko probintzietan jada indarrean zegoena. Horiek guztiak irabazi asmorik gabeko erakunde independenteek sustatuak, **baina estatu mailako Gizakia Helburu Erakundearekin harremanduta**.

Denborak aurrera egin ahala eta drogen kontsumoaren fenomenoaren eraldatzea eta menpekotasun eta tratamenduaren inguruko jakintza zientifiko berriarekin batera, NGHFAk ebolutzio nabarmena izan du zerbitzuen aniztasuna eta profesionaltasun eta interbentzioen etengabeko hobekuntzan.

* EGITEKOA

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa interes sozial, pribatu eta irabazi asmorik gabeko erakunde bat da. Bere egitekoa droga menpekotasunaren aurrean gizon eta emakumeen defensa baita, horretarako prebentzioa eta menpekotasunen eta berauen ondorioen arazoan ikerketa bultzatuz.



* BALIOAK

Elkartasuna

Pertsona kaltetuenak zaindu nahia, zeintzuek adikzio arazoak dituzten edota edukitzeko arriskua duten. Eta lanketa honetan boluntarioen parte-hartzea sustatuz.

Elkarlana

Elkartearen nahia, zeinak partaide guztien arteko elkarlana eta gainontzeko entitate eta zerbitzuen partaidetza sustatu nahi duen.

Profesionaltasuna

Elkartearen konpromezua ekintzetan erabilitako zorroztasun tekniko eta metodologikoarekiko eta droga menpekotasunei buruzko ezagutzaren etengabeko berrikuspenarekin, bai prebentzioan bai tratamenduan. Momentuko ezagutza zientifikoekin eta partaideen etengabeko formakuntzarekin.

Parte-hartzea

Analisi, erreflexio, hobekuntza proposamen eta erabakiak hartzeko momentuan persona guztiak inplikatzeko erakundearen konpromezua. Horretarako iritziz askatasuna eta komunikazio gardentasuna bermatuz.

Baikortasun terapeutikoa

Pertsona bakoitzak bere ibilbidea aldatzeko aukeretan oinarritutako atentzioa sustatzeko gaitasuna. Horretarako indargune eta ahultasunak identifikatuz eta tratamenduaren onuradunari prozesuaren protagonismoa emanez.

Gardentasuna

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren konpromezua hartatze aktibitateen gaineko eta elkartearen gestioari dagokion informazioaren kudeaketaren gardentasunarekin. Informazioaren berri emanez elkarteko partaide eta jendarteari orohar.

EGITARAU ETA ZERBITZUAK

NGHFren egungo egitarau eta zerbitzuak:

Harrerarako eta hasierako diagnostikorako zerbitzua

Fundazioarekin harremanetan lehen aldiz jartzen direnei zuzendua, non haien egoera entzun eta lehenengo diagnosia egiten den. Horren araberako tratamendua ezartzen zaie. Hau guztia gaixoen familia, familiarik balego, sarearen baliabide sozial eta osasunekin koordinatuta.

“Gizakia Helburu” fundazioaren Komunitate Terapeutiko programa

Batetik, gaixoen egoera pertsonal eta soziala eta bestetik, menpekotasun motari dagokion ezaugarri desberdinak kontutan hartuz barnetegi motako tratamendua behar dutenei zuzendua. 48 toki, horietatik 38 Nafarroako Osasun Departamenduarekin hitzartuta daude.

Aldatu- Arreta ambulatorioko zentroa

Bere eguneroko bizitza anbulategi mailako tratamendua-ekin uztar dezaketen pertsonen zuzendua. Gaixoei Iruñeko egoitzan ematen zaie tratamendua bakarkako elkarrizketa eta taldekako saioen bidez. 120 toki, eta horietatik 24 Nafarroako Osasun Departamenduarekin hitzartuta.


“Suspertu” Programa nerabe eta hauen familiei zuzendua

Arrisku handiko jarrerak dituzten nerabe eta familiei zuzendutako baliabidea. Nerabeekin bakarka eta hauen guraso zein tutoreekin egiten diren elkarrizketak, prebentzioan oinarrituak. Horretaz gain, guraso eskola, aisialdirako aktibitateak, eskolarako laguntza akademikoa eta aktibitate gehigarriak. Hauek guztiak pertsona boluntarioekin lagunduak. 45 toki, eta horietatik 18 Nafarroako Osasun Departamenduarekin hitzartuta eta 45 familiendako.

4

Parte-hartze zerbitzua Iruñeko Presondegian

Presoendako bakarkako zerbitzua astez asteko elkarrizketekin, NFGHren tratamenduak eskuragarriago izan daitezen, ordezko neurri gisa presondegian zigorra bete beharrean.



1. FIGURA Egitaraua eta Zerbitzuak

Programa mota asko ditugunez, tratamendu pertsonalizatuak eskaini ditzakegu, erabiltzaileen behar partikularrekin bat etor daitezten.

Arreta zuzeneko programez gain, NGHFak hainbat zerbitzu eskeintzen du. Hauek esan-garatsuenak:

- * **Ikerketa eta garapen** zerbitzua, zeina programen kudeaketa eta garapenaren laguntzaile aritzen den, langileen ikerketa eta artikuluko zientifikoen argitaratzea erraztuz.
- * **Enpresen parte-hartze** zerbitzua, zeinak parte-hartze hitzarmenak sustatzen dituen prebentzioari dagokionez eta jada drogekin arazoak dituzten langileekin lan eginez.

- * **Babes juridiko** zerbitzua, laguntza eskeintzen die tratamenduan dauden eta arazo judizialak dituzten pertsonen.

- * **Gizartean eta Lan-munduan Txertatzeko** Zerbitzua, Langabezian dauden edo lan baldintza kaskarrak dituzten NGHFko erabiltzaileei ematen die laguntza.

- * **Boluntarioria** Zerbitzua. Erakundeko boluntarioen lana sustatzen du, haien prestakuntza bultzatzen du eta dagozkion lan osagarri ugariak antolatzen ditu.

GIZA TALDEA

NGHFan, arlo soziosanitarioko hainbat diziplinatako 42 langile aritzen dira, eta honako hauekin lotutako lanak egiten dituzte: artatze psikoterapeutikoa, artatze medikoa, hezkuntza-artatzea, gizarte-artatzea eta erakundearen kudeaketa. Haien eginkizunak 70 boluntarioren lanarekin osatzen dira; horiek modu altruistan ematen dituzte beren zerbitzuak, zeregin osagarri eta erabiltzaileen oinarrizko beharrak asetzeko eginkizun askotan.

PATRONATUA

Azkenik, Patronatua dugu, NGHFaren gobernu-organoa. Gure Komunitatean beren arloan ospetsuak diren 8 lagun partikularrek osatzen dute. Lagun horiek ere boluntarioak dira, gure estatutuek ezarritakoari jarraituz ("Patronoaren kargua erabat doakoa izango da". NGHFaren Estatutuetako 10. art.).

PATRONATUKO KIDEAK

Presidenteeta

José María Jiménez Nespereira Jn.
Merkataritza Irakaslea. Kontu-ikuskari eta zerga-aholkulari ohia

Idazkaria

Alfonso García Liberal Jn.
Nafarroako Laboral Kutxako Lurralde-zuzendari ohia

Kideak

José María Aracama Yoldi Jn.
Cementos Portland Valderrivaseko Presidenteordea

Jose Antonio Arrieta Garnica Jn.
Arpa Abogados y Consultores, S.M.-ko Presidenteeta

María Paz Benito Osés And.
Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiko Magistratu titularra Iruñeko Epaile Dekanoa.

Jose Miguel Del Amo Villarias Jn.
Aragoiko, Nafarroako eta Euskadiko Ingeniari Agronomoen Elkargoko ordezkaria

Jose Javier López Goñi Jn.
Nafarroako Unibertsitate Publikoko Psikologia Departamentuko Irakasle Titularra

Amelia Salanueva Murguialday And.
Abokatua

Programen Zuzendaritza

Alfonso Arana Marquina Jn.
Gizarte Hezitzailea

Programak 3

Tratamendu programak eta zerbitzuak

Drogamenpeketasunen bi tratamendu modalitate eskeintzen ditu Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak. **Komunitate Terapeutiko** gisako egoitza, (“**Gizakia Helburu** Programa”) eta **Arreta anbulatorioko zentroa**, haien tratamendua eguneroko jarduerekin uztar dezaketen pertsonentzat. Zenbaitetan tratamendu mistoa egін izanda, bi baliabideak erabiliz eta persona bakoitzaren behar zehatzetara mugatuz.

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak badu lankidetzeta-hitzarmen bat Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuarekin, non 36 plaza eskaintzen baitira Komunitate Terapeutikoaren Programarako, eta 24 plaza, “Aldatu” Mendekotasunak Artatzeko Arreta Anbulatorioko Zerbitzurako. Plaza horiek hartzeko, Osasun Mentalaren Zuzendaritzak (departamentu horren mendekoa) onartu behar du bakoitzaren egokitasuna.

HARRERARAKO ETA HASIERAKO DIAGNOSTIKORAKO Z.

Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzuaren erabiltzailearekin adostuta ezartzen da tratamendu-aukera egokiena, Zerbitzu horrek egiten baitu kasuaren lehen balorazioa tratamendu mota egokiena aholkatu ahal izateko. Fase horretan, erabakigarria da familiaren benetako inplikazioa eta Nafarroako gizarte- eta osasun-baliabideen (osasun-etxeak, udaletako gizarte-zerbitzuak, Epaitegiak, aterpetxeak, gizarte-jantokiak, eta abar) esku-hartzeen koordinazioa, batez ere baztertze-arriskuan dauden pertsonen kasuan.

2016an, Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzuak 301 kasu artatu ditu Iruñeko egoitzan. Horietatik, 191k fasea bukatu dute eta gure tratamendu programetako batean hasi dira parte hartzen. Artatutako gainerako pertsonak informazio- eta/edo aholkularitza-elkarrizketetan bakarrik hartu dute parte; kasu askotan, drogen mendekotasuna jasaten duen pertsonaren familiakideak edo hurbileko pertsonak ziren.

Tuteran, berriz, 196 kasu artatu dira, eta, horietatik, 104 tratamendu-programetara bideratu dira.

EGOITZA	ARTATUTAKO KASUAK	PROGRAMETARA BIDERATUAK
Iruñea	301	191
Tutera	196	104
GUZTIRA	497	295

1. TAULA 2016an Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Programan artatutako kasuak

TRATAMENDUA EGITEKO ONARTUAK

Artatutako lagunen lan-egoera eta ezaugarriak

Eskaeraren bilakaera

2016an, 198 pertsona onartu dira tratamendua egiteko; aurreko urteetan antzeko kopuruak izan dira. %63,1 Aldatu Arreta Anbulatorioko Zentroan onartu da, eta %36,9, Gizakia Helburu Komunitate Terapeutikoaren Programan.

Honako hau da programetako eta baliabideetako batean artatutako pertsonen kopurua, guztira: Erreferentzia berean sartu dira Komunitate Terapeutikora Sartzan Prestatzeko Zerbitzuko artatzeak; Prestakuntza hori Komunitate Terapeutikoan sartu aurreko fase bat da, eta modu anbulatorioan egiten da; Iruñeko Espetxeko Zerbi-tzukoak ere hor sartu dira.


PROGRAMA	KOP.
ALDATU Zentro Anbulatorioa	235
Gizakia Helburu K. Terapeutikoa	102
K.T.-rako Prestakuntza Zerbitua	73
Espetxea	52

GUZTIRA 462

2. TAULA Artatutako pertsona kopurua, programaren arabera

Ezaugarri soziodemografikoak

2016an tratamenduan hasi diren pertsona gehienak gizonezkoak dira (%83,6 gizonezkoak eta %16,4 emakumeak). Batez besteko adina 37,1 izan da, eta, aurreko urteetan bezala, emakumeek, batez beste, adin handiagoa zuten (40,1 urte emakumeek, eta 36,5,



1. GRAFIKOA Tratamenduan onartzen diren kopuruaren bilakaera, urteka (helduak)

gizonek). Lan-egoeran, hobekuntza txiki bat izan da, gizarte osoak izan duen enplegutatsaren bilakaeraren erakusgarri. Dena den, aipatzekoa da Komunitate Terapeutikoaren programan sartu diren lagunen artean altua dela langabezia-tasa. Oro har, hala ere, landunen eta langabetuen proportzioa aurreko urtekoaren antzekoa izan da.


Tratamenduaren eskaera sortu duen substantzia

Alkoholak jarraitzen du izaten tratamendu-eskaera handiena sortzen duen droga, kasuen %35,1 baita. Bestalde, pertsonen %26k kokaina aipatu zuen substantzia nagusi gisa eta bigarren substantzia izaten jarraitzen du, baina, aurreko urteen aldean, atzerakada handia izan du. Anfetaminek (kasuen %15,1) hirugarren lekua hartzen dute, eta gorako bidean jarraitzen du haxixaren kontsumoarengatik egindako eskaerak, %14,6. Lehengo urtean tratamendua eskatu zuten pertsonen %4,8k bakarrik aipatu zuen heroina.


2016an, jokoarekiko mendekotasuna duten pertsonekin hasi gara lanean, modu esperimentalean, Aldatu zentro anbulatorioan, eta eskaeren %2,4 zegoen lotuta arazo horrekin.

Hala ere, ohartarazi behar dugu datu horiek eskaera egin duten pertsonen aipatutako substantzia nagusiari egiten diotela erreferentzia, baina, kasu gehienetan, zenbait substantzia batera hartzen dituzte, eta, ehuneko handi batean, horietako bakoitzerako, banakako diagnostiko bat behar lirateke gehiegizko erabilera edo mendekotasunari dagokionez. Hala, adibidez, ikusi dugu pertsonen %66,3k substantzia batekin baino gehiagorekin zituela arazoak, eta alkohola eta haxixa, hurrenez hurren, agertzen ziren eskaera sortzen zuen substantziarekin batera.


Deigarria da, halaber, zer-nolako aldeak dau den eskaera sortzen duen substantziaren eta generoaren artean. Emakumeen kasuan, eskaeren erdia baino gehiago alkoholaren kontsumoari dagokio, eta, gizonen kasuan, berriz, hiru gizonetatik batek bakarrik egin du eskaera alkoholarengatik.




2. GRAFIKOA Generoen araberako banaketa, programak




3. GRAFIKOA Batez besteko adina, programaren arabera




4. GRAFIKOA Lan-egoera



5. GRAFIKOA Erabiltzaileek aipatutako substantzia, urtearen arabera



6. GRAFIKOA Substantzien konstsumo-arazoekin diagnostikatutako pertsonak GNS 10en arabera (Aldatu, 2016)



7. GRAFIKOA Eskara sortzen duen substantzia nagusia, generoen arabera (ehunekoa)

KOMUNITATE TERAPEUTIKOA

Gizakia Helburu Barnetegi-Programa

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren Komunitate Terapeutikoak sustantzia eta drogekiko menpekotasuna duten pertsonen zerbitzua eskeintzen die. Haien egoera soziala eta pertsonala dela eta, erresidentzia motako tratamendua behar dutenak.

Tratamenduen luzapena aldakorra da, 3 hilabetetik 12ra bitarteko egonaldiak izaten dira eta norbanakoaren beharren arabera.

Esku-hartzea medikuntza, psikoterapia, hezikuntza, formakuntza eta jendarte esparruetan ematen da, Nafarroako osasun baliabideekin elkarlan estuan.

Horretarako, Programa hau mediku, psikologo, gizarte langile, gizarte hezitzaile eta esparru desberdinetako irakasleek osatzen dute. Horri guztiari boluntarioen ekarpena gehitu behar zaio: telefono deiak jaso, harre-ra, erosketa zerbitzuari laguntza, zerbitzuen erabiltzaileen irteeretan lagundu, aisia, formakuntza eta kultur ekitaldien antolaketa eta laguntza.

2002tik, egoitza egonaldia bukatzen duten erabiltzaileek, "Aldatu-n", Adikzioen Anbulategi Arretarako Birgizarteratze Zentroan jarraitzen dute tratamendua.


IRUÑEA	2011	2012	2013	2015	2016
Programan izan den artatze kopurua, guztira	145	146	146	160	151
Barnetegian sartu gabe artatu diren pertsonak	43	36	41	43	49
K.T.-ko artatze kopurua, guztira	102	110	105	117	102
K.T.-an zegoen pertsona kopurua, urtarrilaren 1ean	41	43	41	45	44
K.T.an sartu direnen kopurua	61	67	72	72	64
Barnetegira sartu direnen kopurua	46	43	42	48	44
Barnetegira berriz sartu direnen kopurua	15	24	30	24	20
K.T.-tik atera direnen kopurua	59	60	69	73	71
Prozesuan izan diren altak	33	32	38	33	33
Bideratze kopurua	3	6	4	5	6
Kanporatzeen kopurua	2	4	8	8	7
Borondatezko alten kopurua	20	16	18	26	21
Bestelakoak	1	2	1	1	3
K.T.-aren erabiltzaile kopurua, abenduaren 31n	43	41	44	44	38
3. TAULA Jarduera Adierazleak					

Komunitate Terapeutikorako Prestakuntza Zerbitzua

Gizakia Helbururen Komunitate Terapeutiko programak hasierako fase bat du, ambulategi gisakoa, luzapen finkorik gabe baina kasu gehienetan hilabete baino gutxiagokoa. Honako hauek dira fase honi dagozkion helburuak: funtzionamendua ezagutu, egoitzan sartzeko gutxieneko egonkortasun fisiko eta pertsonala lortu eta horretarako beharrezkoak diren tramiteak burutu.

2016an, 71 pertsona artatu ditugu Iruñeko egoitzan (Espetxeke artatzeak kontuan hartu gabe), eta, horiei Tuteran artatutako 15 lagunak gehitu behar zaizkio. Guztira artatu diren 86 lagunetatik, 64 urte horretan bertan sartu dira Komunitate Terapeutikoan.

Ezaugarri soziodemografikoak eta osasun-arlokoak



8. GRAFIKOA K. Teurapeutikorako Prestatzeko Zerbitzuan artatutako pertsonak

Generoa

Artatutako pertsonen %86,2 gizona zen, eta, %13,8, berriz, emakumea; azken horien proportzioak behera egin du nabarmen azken urte honetan.

Adina

Batez besteko adina 38,1 izan da; emakumeen kasuan, altuxeagoa zen (39,0) gizonen kasuan baino (37,9).

Lan-egoera

Tratamendua eskatu zuten unean, pertsonen %72,4 langabezian zegoen. Erabiltzaileen %25,9k bazuen lana, eta gainerakoak beselako egoeretan zeuden (balioezintasuna, erretiroa, etab.).

Ezaugarri psikologikoak

Erabiltzaileen honako ehuneko honek bazuen nahasmen psikologikoren bat sartu zenean: antsietate-nahasmendua %34,5, gogoaldartearen nahasmendua %31, nahasmendu psikotikoa %10,3 eta nahasmendu organikoa %6,9. Honako Nortasun Nahaste hauek agertzen dira gehien: Nortasun Nahasmendu Antisoziala (%15,5), Nortasun Nahasmendu mistoa (%8,6) eta Nortasun Saiheskariaren Nahasmendua (%8,6).


Kontsumoaren ezaugarriak

Aurreko urteen aldean, alkoholarengatik artatzeek gora egin dute, eta, emakumeen kasuan, substantzia nagusi gisa agertzen da. Aipagarria da anfetaminek kokaina baino presentzia handiagoa dutela, eta hori orain arte ez da inoiz hala gertatu baliabide horren kasuan.

Familiekiko Esku-hartzea

Gizakia Helburun familiarekin egindako lanak berebiziko garrantzia du eta prozesu osoan zehar bakarka zein taldekako jarduerak burutzen dira. Gainera, zerbitzu honek tratamendura hurbildu ahal izan ez dituzten senide eta gertukoak ere zaintzen ditu, etxean drogekiko arazo horri aurre egiten lagunduz.

Lehenko urtean artatutako pertsonen %94,7k bazuen familiakideren baten edo hurbileko norbaiten laguntza aktiboa, eta kasuen %5,3an ez zuten halakorik. Kasu horietako askotan, gure erakundeko boluntarioek egin zituzten sostengu-jarduera gehienak.



9. GRAFIKOA Droga nagusia K. Terapeutikoan, generoen arabera (ehunekoak)

FAMILIEKIN EGINDAKO JARDUERAK

Artatutako familiakideen kasuak	109
K.T.-ko tratamendua hartzeko prestatzen ari ziren erabiltzaileak	95
Prestakuntzan artatu eta sartu ez direnak	3
Familiaren Orientazio Zerbitzuan artatutako kasuak (etortzen ez diren pertsonen hurbilekoentzat)	11
Artatutako pertsonak	472
Familiaren edo hurbilekoen laguntza duten pertsonak	%94,7
Familiaren edo hurbilekoen laguntza ez duten pertsonak	%5,3
Familia-elkarrizketak	550
Mintegi psikoedukati boen saio kopurua	55 (779 etortze)
Familia-topaketak	46
Familia- edo bikote-historiak	58
Komunikazio-saioen kopurua	51

4. TAULA 2016an familiekin egindako jarduerak

ALDATU

Menpekotasunen anbulategi gisako egoitza

Menpekotasunen anbulategi gisako artatze egoitza, ALDATU, 1986an anbulategi eran drogekiko menpekotasuna zuten pertsonen laguntza emateko hasi zen.

ALDATU drogen kontsumoarekin arazoak (kokaina-bizigarriak eta kalamua batez ere) dituzten pertsonen zuzendua dago, zeintzuek familia eta gertukoekin eta harremana mantendu nahi duten, lan mundua eta jendartearekin apurtu gabe, haien egunerokoa mantenduz. Oro har, tratamendu horretara etortzen diren pertsonen ez dute porrotik bizi izan antzeko programetan; gizarte-sostengu mesedegarria duten pertsonak dira (familiak, lagunak eta abarrek lagundu egiten dute tratamenduan); familia- edo lan-behar saihetsezinak dituzte; nahasmendu psikologiko larririk ez dute eta

egoitza- eta mantenu-beharrak aseak dituzte.

2002tik Lizarrako Komunitate Terapeutikoan birgizarteratze prozesuan dauden pertsonak artatzen ditu, zeintzuek haien egonaldia egoitza erregimenean bukatu duten.

Ezaugarri soziodemografikoak

Generoa


Artatutako pertsonen %82,2 gizonenak ziren, eta %17,8, berriz, emakumezkoak.

Adina

Batez beste, adinak behera egin du aurreko urtearen aldean, eta, orain, 36,5 urte da; emakumeengan, batez besteko adina (40,6) nabarmen handiagoa da gizonengan baino (35,7).

JARDUERA ADIERAZLEAK	2012	2013	2014	2013	2014
Artatze kopurua	241	241	239	235	235
Erabiltzaile kopurua, urtarillaren 1ean	114	100	115	115	110
SARRERAK	127	141	124	120	125
Sartze kopurua	93	103	96	84	93
Berriz sartzen direnen kopurua	34	38	28	36	32
IRTEERAK	141	126	124	127	107
Alta Terapeutikoak	60	44	47	47	56
Osasun Zerbitzuetara egindako bideratzeak	7	8	6	9	2
Nafarroako GHko K.T.-rako bideratzeak	5	8	8	17	10
Tratamenduari uko diotenak	15	12	14	12	3
Borondatezko altak	48	50	45	39	28
Bestelakoak (Espetxeratzeak, zentzea)	4	4	4	3	8
Erabiltzaile kopurua, abenduaren 31n	100	115	115	109	128

5. TAULA Jarduera Adierazleak



10. GRAFIKOA Droga nagusia Aldatun, generoen arabera (ehunekoak)

Lan-egoera

Modu ambulatorioan artatutako lagun gehienak lanean ari ziren (%55,1). %29,9 langabezian zeuden; %7,5 ikasleak ziren, eta gainerakoak bestelako egoeretan zeuden.

Aurrekariak

2016an Aldatun lehen aldiz sartzen zirenen %48,6k lehenago ere beste tratamenduren bat egina zuen alkoholarekin eta/edo beste drogekin zuen arazoarengatik. Gainera, %38,3k arazo psikologikoentzako tratamenduren bat egina zuen.

Horrez gain, oso nabarmenak dira arazo horiekin lotutako familia-aurrekarien ehunekoak: artatutako lagunen %51,4k alkohol-arazoekin lotutako familia-aurrekariak zituen; %42,1ek, bestelako droga-arazoekin lotutakoak, eta %35,5ek, arazo psikologikoekin lotutako aurrekariak.

Kontsumoaren ezaugarriak

Aurreko urteen aldean, honako hauek nabarmentzen dira: alkoholak droga nagusi gisa

izan duen beherakada (hiru urtean, zortzi puntu jaitsi da), kokainaren beherakada (hala ere, substantzia nagusia izaten segitzen du baliabide horretan), anfetaminen gorakada txiki bat, eta haxixek hirugarren postuari eusten dio tratamendu-eskaeretan.

Zegokion ebaluazioa egin eta gero, horren inguruan ikusi genuen artatutako pertsonen %70 inguruk arazoak zituela alkoholarekin eta ia erdiak haxixarekiko abusu- edo mendekotasun-ezaugarriak zituen. Guztira, programa ambulatorioan parte-hartzen zuten pertsonen bi herenek bazituzten arazoak substantzia bat baino gehiagorekin.

Familien Parte Hartzea

Barnetegi-programan bezala, Aldatun artatutako lagunen familiak edo hurbilekoak funtsezko laguntza dira tratamendurako. 2016an, parte-hartzaileen %72,9ri eskatu zitzaion familiaren laguntza, eta, azkenean, horietatik, %69,2k hartu zuen parte tratamenduan.



ILUNSENTIA
Loli Amezqueta

Suspertu 4

Nerabeei eta haien familiei laguntzeko programa

SUSPERTU, Nafarroako Gizakia Helbururen erantzuna da, gazteen artean prebentzio eraginkor bati ganoraz heltzeko. Lan trinkoa jada arazo egoeretan dauden gazte, hauen familia eta gertukoekin eta errekurtsio anizetan gazte hauek hartatzen dituzten pertsonekin. Prebentzio papera betetzen lagunduz.

SUSPERTU 1997an sortu zen eta egun arreta zuzena eskeintzen die nerabe zein senideei. Bestalde prebentzio zerbitzua ere bada, laguntza, hezkuntza eta aholkularitza eskatzen duten horiei guztiei zuzendua..

Programak hitzartutako 18 plaza ditu, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamenduarekin duen lankidetzak-akordioari esker.


2016	NERABEAK	FAMILIAK
Pertsona kopurua, urtarrilaren 1ean	28	28
Artatze berriak	89	115
Programan sartu direnak	83	76
Programatik atera direnak, guztira	78	74
Altak	42	46
Borondatezko altak	12	11
Bideratzeak	11	9
Baldintzak bete ez dituztenak	9	4
Bestelakoak	4	4
Artatutako pertsonak, guztira	117	143
Programan sartuta daudenak, guztira	111	104
Pertsona kopurua abenduaren 31n	33	30

6. TAULA Programan izan diren sarrerak eta irteerak


Jarduera adierazleak

SUSPERTU Programak arreta trinkoa eskaintzen die bai nerabeei berei bai beren familiei

(oro har, gurasoei); nerabe eta familia horiek profesional independenteek artatzen dituzte prozesuan zehar, baina elkarren artean koordinatuta. Halaber, gurasoeekin bakarrik lan



11. GRAFIKOA Artatutako Familia kopurua, urteka



12. GRAFIKOA Artatutako Nerabe kopurua, urteka

2016KO JARDUERAK	PROGRAMATUTAKOAK	EGINDAKOAK	% EGINDAKOAK
Nerabeekin egindako elkarrizketak	895	684	76,4
Familiekin egindako elkarrizketak	1.343	1.247	92,8
Familia-topaketak	272	261	95,9
Guraso-eskoletara etorritakoen kopurua	843	705	83,6
Kanpo-jarduerak	124	124	100,0
Jarraipen-elkarrizketak	125	105	84
Kontaktu berriekiko elkarrizketak	289	269	93,1
Eskola-laguntzarako Gela	19	18	94,7
GUZTIRA	3.968	3.458	87,1

7. TAULA Nerabeentzat eta familientzat egindako arreta zuzeneko jarduerak

	HASIERAKO DATA	BUKAERAKO DATA	PARTE HARTU DUTEN F.
37. TALDEA	2015/09/23	09/03/2016	18
38. TALDEA	2016/01/18	20/06/2016	20
39. TALDEA	2016/09/19	Irekia	30

8. TAULA Guraso-eskola

	LANTEGI KOPURUA	ORDUAK LANTEGIA	HITZALDI KOPURUA	ORDUAK HITZAL.	ASISTENCIA TALLERES	ASISTENCIA CHARLAS
Ikasleak	43	112	5	5	933	186
Familiak/Profesionalak	3	14	4	6	54	130
GUZTIRA	46	116	9	11	987	316
Etorritakoak, Guztira						1.303

9. TAULA Kanpo-jarduerak

egiteko aukera eskaintzen dugu baldin eta beren seme-alabak programara ekartzea lortzen ez badute.

Artatutako pertsonak

2016an, guztira, 117 nerabe eta 143 familia artatu ditugu. Azken horietatik, 104k modu trinkoan hartu dute parte gure programan, eta, 39 kasutan, berriz, esku-hartze laburragoak egin dira.

Guraso eskola

Gurasoek beren seme-alaba nerabeak hezteko duten gaitasuna indartu nahi du guraso-eskolak, eta, bereziki, arrisku-jokaerei aurre egiteko gaitasuna. 2016an, hiru edizio egin ditugu eta 68 familia berri izan ditugu.

Kanpora begirako aktibitateak

Suspertun, honako gai hauekin lotutako jarduera ugari egiten ditugu: profesionalen presetakuntza, hedabideetan parte hartzea eta aholkularitza. Profesionalen prestakuntzari eta familiekin eta ikastetxeetan ikasleekin egindako kanpo-jarduerei dagokienez, ondoren ageri dira parte-hartzearen datuak; familien eta profesionalen ikastaroek, batez beste, 8,8 puntuko asebetetzea (10etik) lortu dute.

Eskaeraren arrazoia

Artatutako familien %72,3k dio beren seme-alabek drogak hartzea dela bere kezka handienetako bat; hala ere, %61,3k bakarrik aipatzen du bere eskaeraren arrazoi gisa. Bigarren postuan, familia-gaztaka agertzen da; kasuen %37,4n. Aipatutako gainerako arrazoi nagusien artean, honako hauek ageri dira: teknologien gehiegizko erabilera, oldarkortasuna, eskolara ez joatea edo jokaera-arazo orokorrak.

Nerabeen ezaugarri soziodemografikoak

Batez besteko adina

16,3 (Mutilak: 16,3; Neskak: 16,5).

Generoa

Lehen aldiz sartzen direnen %75,9 mutilak dira eta %24,1, neskak.

Bizikidetzagunea

%65,1 bere jatorrizko familiarekin bizi da; %20,5 guraso bakarrarekin bizi da; %2,4 berrosatutako familia batean bizi da, eta %1,2 Adingabeentzako Zentro batean. Gainerakoak bestelako egoeretan bizi dira.

Okupazioa

%86,7 ikasten ari da; %1,2 lanean ari da. %12,7k ez du okupaziorik

Bestelako ezaugarriak:

Nerabeen %7,2k harremanen bat izan du Adingabekoen Epaitegiekin; ehuneko hori aurreko urteetakoa baino askoz handiago da.

Familien ezaugarri soziodemografikoak

Batez besteko adina

48,22 (Gizonezkoak: 50,8; Emakumezkoak: 46,7).

Generoa

%44,1 gizonezkoak; 55,9 emakumezkoak.

Egoera Zibila

%65,0 ezkonduak edo izatezko bikotean; %28,9 dibortziatuak edo bereziak; %2,4 alargunak.

Ikasketa maila

%28,6 lizentziatuak edo diplomatuak; %24,3 LH2-Batxilergoa; %21,3 Eskola graduatua; %16,2 lehen mailako ikasketak

Lan-egoera


%82,4k lan egiten du; %3,7 etxeko zeregine-tan aritzen da; %6,6 langabezian dago.

5 Tuterera

Tuterako eta Erriberako Artatze-Zentroa

Tuteran eta Erriberan Mendekotasunak Artatzeko Zerbitzuko Fundazioa 2007ko azaroan sortu zen, 20 urtez Tuteran eta haren Eskualdean Mendekotasunak Artatzeko Elkartearen egin zuen lanari jarraipena emateko. Fundazio hori Gizakia Helburu Programen sustatzailea da Tuteran eta Nafarroako Erriberan, eta, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren programa eta zerbitzu guztiekin koordinatuta, honako programa eta jarduerak egiten ditu gaur den egunean:

- ★ Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzua
- ★ Komunitate Terapeutikoan Sartzen Prestatzeko eta Erabiltzailea Baliabide Hori Erabiltzen Ari Den Bitartean Familiari Jarraipena Egiteko Programa
- ★ Drogekin arazoak dituzten helduentzako Programa Anbulatorio Trinkoa
- ★ Gazte Programa
- ★ Komunitate Prebentziorako eta Esku-Har-tzerako Zerbitzua
- ★ Boluntariotza Zerbitzua



Datu Orokorrak

2016an, programa eta zerbitzu guztietan, 263 lagun artatu ditugu modu zuzenean, 2.648 elkarrizketaren bidez, honako taula honetan erakusten den bezala banatuta:

PROGRAMA	2015	2016	2016AN EGINDAKO ELKAR.
Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzua	92	95	572
Helduentzako Programa Anbulatorio Trinkoa	73	91	1.506
K. Terapeutikorako Prestatzeko eta Jarraipena egiteko	28	15	166
Gazte Programa - Nerabeak	17	21	183
Gazte Programa - Familiak	39	41	221
GUZTIRA	249	263	2.648

10. TAULA 2016an Tuterako Gizakia Helburun artatutako lagunak, programen arabera

Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzua

Iruñean bezala, gure laguntza-programetarako "ataria" da. Zerbitzu horrek berentzat edo beren ingurukoentzat laguntza eske etortzen diren lagunei espazio bat eskaintzen die, harrerarako, entzuteko eta hasierako balioespenerako.

Bakarkako elkarrizketa bat/batzuen bidez, zerbitzuko profesionalak kasua aztertzen dute eta, tratamendu bat hastea beharrezkoa bada, ukitutako pertsonak aukerarik egokiena ezartzen dute, denen artean adostuta: ambulatorioa, barnetegikoa edo Gazte Programa.

Barnetegi-erregimeneko tratamendua egitea beharrezkoa bada, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak Lizarran duen Komunitate Terapeutikoan gauzatzen da. Tuteran, hala ere, sartu aurreko fase ambulatorioa egiten da (komunitate terapeutikoan sartzen prestatzeko), baita atera ondoko fasea ere, bereziki

	2015	2016
Artatutako pertsonak, guztira	196	198
Zerbitzu hori bakarrik erabiltzen dute	92	95
Programetako batera bideratzen dira	104	103

11. TAULA

Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzuko Artatzeaklnicial

gizarteratzera bideratua; azken hori arreta ambulatorioiko programan egiten da.

2016an, Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzuak 198 kasu artatu ditu, guztira. Horietatik, 103k fasea bukatu dute eta gure tratamendu-programetako batean hasi dira parte hartzen. Artatutako gainerako pertsonak informazio- eta/edo aholkularitza-elkarrizketetan bakarrik hartu dute parte; kasu askotan, mendekotasunak jasaten duen pertsonaren familia-kideak edo bestelako hurbileko pertsonak ziren.



2. FIGURA Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzua eta programa eta zerbitzuetara bideratzea.

Helduentzako Programa Anbulatorioa

2016an, 91 pertsona artatu ditugu baliabide horretan, eta, guztira, 1.363 elkarrizketa egin dira. Artatzeen bolumenak gorakada nabarmena izan du aurreko urtearen aldean.


2016n programa anbulatorioan parte hartu duten lagunen batez besteko adina 33 urte izan da, eta gizonezkoak ziren gehienak (%83 gizonezkoak, %17 emakumezkoak). Eskera eragin zuen substantzia nagusiari dagokionez, %51k anfetaminak aipatzen zituen; %23k

haxixa; %16k alkohola eta %10ek kokaina. %45 Tuteran bizi zen.


Komunitate Terapeutikoan Sar-tzen Prestatzeko eta Familiari Jarraipena egiteko Programa

Guztira, 15 lagunek hartu dute parte zerbitzu horretan; Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak Lizarran duen Komunitate Terapeutikoan sartu aurreko fasea da.

Gainera, 60 familiakide edo hurbileko artatu



13. GRAFIKOA Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Programan artatutako pertsonak, urteka



14. GRAFIKOA Programa Anbulatorioan artatutako pertsonak, urteka


	2015	2016
Artatze kopurua, guztira	73	91
Pertsona kopurua, urtarilaren leian	24	30
SARRERAK	49	61
IRTEERAK	44	55
Alta Terapeutikoak	20	22
Bideratzeak	6	5
Tratamenduari uko egitea	3	7
Borondatezko altak	11	15
Bestelako irteerak	4	6
Pertsona kopurua abenduaren 31n	30	36

12. TAULA Helduentzako Programa Anbulatorioa

ditugu, bai Komunitate Terapeutikoan sartzen Prestatzeko fasean, bai, ondoren, ukitutako pertsonak zentroan egiten duen egonaldian zehar haiei lagun egiteko.

2016an zerbitzu horretan artatutako pertsonen batez besteko adina 40 urte izan da, eta, kasu guztietan, gizonaek izan dira. Eskararekin lotutako substantzia nagusiari dagokionez, %40,0k alkoholarekin zituen arazoak;

%33,3k anfetaminekin; %20,0k kokainarekin eta %6,6k haxixarekin. Azpimarratzekoa da artatutako pertsonen %94k substantzia bat baino gehiago hartzen zuela. Hala, adibidez, %80,0k zioen haxixa kontsumitzen edo kontsumitua zuela eta %46,6k, kokaina.



15. GRAFIKOA KTrako prestatzeko Programan artatutako pertsonak, urteka

	2015	2016
Arreta-kopurua	28	15
Pertsona kopurua, urtarilaren lean	2	4
SARRERAK	26	11
IRTEERAK	24	15
Gizakia H.ko K.T.-n sartutakoen kopurua	15	7
Beste K. Terapeutikoetan sartutakoen kopurua	1	2
Borondatezko altak	6	4
Bestelako irteerak	2	2
Pertsona kopurua abenduaren 31n	4	2

13. TAULA Komunitate Terapeutikoan Sartzen Prestatzeko eta Familiari Jarraipena egiteko Programa

Gazte Programa

2016n, guztira, 21 nerabe eta 43 familiakide artatu ditugu, programatutako 454 elkarrizketaren bidez.

Programan parte hartu duten nerabeen batez besteko adina 16,6 zen. %81 mutilak ziren, eta %19, berriz, neskak. Zerbitzuan sartzeko honako arrazoi nagusi hauek aipatu dira (erantzun bat baino gehiago eman zitekeen):


- ★ Drogak hartzea: %93,9
- ★ Familia-gatazkak: %75,0
- ★ Eskola-porrota %62,5
- ★ Neurri judiziala: %6,25
- ★ Jokoarekiko arazoak: %6,25

Drogen kontsumoari dagokionez, haxixaren kontsumo-tasa nabarmentzen da, bereziki, artatutako nerabeen artean (%78,3); haren ondotik, alkohola (%72,3), anfetaminak-speeda (%18,1) eta estasia (%6,0) ditugu.

FAMILIAK	2015	2016
Familiak urtarilaren lean	10	5
Familiatzako informazioak eta orientazio laburrak	29	38
Sarrerak	10	25
ARTATUTAKO FAMILIAKIDEAK, GUZTIRA	39	43
Programan parte hartu dutenak	20	30
NERABEAK	2015	2016
Nerabeak urtarilaren lean	6	5
Programan sartu direnak	11	16
ARTATUTAKO NERABEAK, GUZTIRA	17	21
Alta Terapeutikoen kopurua	7	5
Borondatezko alten kopurua	3	4
Bideratze kopurua	2	-
Abenduaren 31an segitzen zutenak	5	12

14. TAULA

Familiatzako/Nerabeentzako Arreta. Gazte Programa



16. GRAFIKOA Gazte Programan artatutako nerabeak, urteka

Bilakaera 6

Eskariaren bilakaera

	2014			2015			2016		
	Iruñea	Tutera	Guzt.	Iruñea	Tutera	Guzt.	Iruñea	Tutera	Guzt.
Gizakia Helburu	124	22	146	132	28	160	136	15	151
Aldatu Zentro Anb.	239	74	313	235	73	308	235	91	326
Suspertu Nerabeak	124	21	145	109	17	126	117	21	138
Suspertu Familiak	150	36	186	158	39	197	143	41	184
GUZTIRA	637	153	790	634	157	791	631	168	799

15. TAULA ARTATUTAKO PERTSONAK

	2014			2015			2016		
	Iruñea	Tutera	Guzt.	Iruñea	Tutera	Guzt.	Iruñea	Tutera	Guzt.
Gizakia Helburu	55	17	72	56	16	72	57	7	64
Aldatu Zentro Anb.	124	54	178	120	49	169	125	61	186
Suspertu Nerabeak	84	17	101	74	11	85	83	16	99
Suspertu Familiak	80	28	108	67	29	96	76	25	101
GUZTIRA	343	116	459	317	105	422	341	109	450

16. TAULA SARERRAK

	2014			2015			2016		
	Iruñea	Tutera	Guzt.	Iruñea	Tutera	Guzt.	Iruñea	Tutera	Guzt.,
Gizakia Helburu	27	11	38	32	12	44	27	6	33
Aldatu Zentro Anb.	47	15	62	47	20	67	56	22	78
Suspertu Nerabeak	56	4	60	42	7	49	42	5	47
Suspertu Familiak	66	7	73	54	7	61	46	10	56
GUZTIRA	196	37	233	175	46	221	171	43	214

17. TAULA ALTA TERAPEUTIKOAK

7 Ikerkuntza

Ikerkuntza, hezkuntza eta prestakuntza



Ikerkuntza Proiektuak

2016an, beste bi ikerkuntza-proiektu sustatu ditugu, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Nafarroako Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzaz hitzarmen banaren ondorioz. Proiektu horiek erakundeak sortutako jardueran oinarrituta daude; hainbat urtetarako finantziazioa dute, eta aurreikusten da hurrengo urteetan aurrera jarraituko dutela.

URTEA	IIKERKETA	UNIBERTSITATEA	FINANTZATZAILEA
2016-2020	“Tratu txarrak jasan dituzten eta mendekotasuna duten pazienteentzako esku-hartze programa baten eraginkortasuna”	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa
2017-2019	“Mendekotasuna, Nortasuna eta Frustrazioarekiko Tolerantzia: Gizakia Helbururi atxikitako subjektuen ikerketa neuropsikologikoa”	Nafarroako Unibertsitatea	Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

18. TAULA 2016an sustatutako ikerketa-proiektuak



Abian diren Doktorego Tesiak

2016an, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioko hiru langilek aurrera egin dute abian zituzten doktorego-tesien ikerketa-prozesuetan eta gure programen jarduerarekin dute lotura tesi horiek.

EGILEA	IZENBURUA	AURREIKUSITAKO DATA
Iturain Jiménez de Bentrosa, Sonia.	Arrisku-egoeran dauden gazteen familiekin esku hartzeko prebentzio-programa baten ebaluazioa	2017ko iraila
Esarte Esevenri, Sonia	Alkoholismorako tratamendu ambulatorioaren programa baten eraginkortasunaren ebaluazioa	2017ko iraila
Mendigutxia Sorabilla, Garikoitz	Arrisku-egoeran dauden nerabeen familiekin esku hartzeko prebentzio-programa baten ebaluazioa	2018

TABLA 19 Abian diren Doktorego Tesiak



ARGITALPENAK

2017an, gure tratamendu-programetako laginetan 2016an egindako hiru ikerketa argitaratuko dira aldizkari zientifikoetan.

- * **Searching objective criteria for patient assignment in addiction treatment.** López-Goñi, J.J.; Fernández-Montalvo, J.; Arteaga, A.; Esarte, S. Urtea: 2017. Aldizkaria: Journal of Substance Abuse Treatment. Doi: 10.1016/j.jsat.2017.02.014
- * **Gender differences in treatment progress of drug-addicted patients.** Fernández-Montalvo, J.; López-Goñi, J.J.; Azanza, P.; Arteaga, A.; Cacho, R. Urtea: 2017. Aldizkaria: Women Health. Doi: 10.1080/03630242.2016.1160967
- * **Educational styles, parenting stressors and psychopathological symptoms in parents of adolescents with high-risk behaviours.** Ituráin, S.; López-Goñi, J.J.; Arteaga, A.; Deusto, C.; Fernández-Montalvo, J. Urtea: 2017. Aldizkaria: Drugs: Education, Prevention and Policy. Doi: 10.1080/09687637.2016.1191062

Ikastaroetan, jardunaldietan eta kongresuetan izandako parte-hartzea

- * **Aristu, M.** Esku-hartze Soziala Egoera berezietan dauden familiekin. NUPEko Gizarte Lan Departamentuak antolatutako Masterreko Mintegia. 2016ko urtarrilaren 18a.
- * **Moreno, G.** "Mendekotasunak: zer diren, zergatik sortzen diren, nola artatu mendekotasun bat duen pertsona bat. Mintegi Teknikoa: mendekotasunak lan-arloan. Mutualia. Donostia, 2016ko martxoaren 17a.
- * **Moreno, G.** Nola heldu drogen kontsumoari lan-arloan. CSIFeko funtzionarioentzako Prestakuntza Ikastaroak. Madril, 2016ko maiatzaren 12a.
- * **López-Goñi, J.J.; Fernández-Montalvo, J.; Arteaga, A.; Cacho R. y Azanza, P.** Generoen arteko aldeak mendekotasuna duten pazienteen eboluzioan. 2016ko HOMINIS

Psikologiari buruzko Kontinentearteko VII. Biltzarra. Psikologia eta Mendekotasun Jarrerei buruzko Nazioarteko II. Sinposioa. Habana (Kuba), 2016ko maiatzaren 9tik 13ra.

* **Fernández-Montalvo, J; López-Goñi, J.J.; Arteaga, A.;** Cacho R. y Azanza, P. Bortzikeria fisiko, psikiko eta/edo sexualaren biktima diren eta mendekotasun duten emakumeen eboluzio terapeutikoa. 2016ko HOMINIS Psikologiari buruzko Kontinentearteko VII. Biltzarra. Psikologia eta Mendekotasun Jarrerei buruzko Nazioarteko II. Sinposioa. Habana (Kuba), 2016ko maiatzaren 9tik 13ra.

* **Arteaga, A.; Fernández-Montalvo, y J; López-Goñi.** Mendekotasun batengatik tratamenduan dauden pazienteen ezaugarri bereizgarriak bikotearekiko biolentzia gauzatzeari dagokionez. 2016ko HOMINIS Psikologiari buruzko Kontinentearteko VII. Biltzarra. Psikologia eta Mendekotasun Jarrerei buruzko Nazioarteko II. Sinposioa. Habana (Kuba), 2016ko maiatzaren 9tik 13ra.

* **Pomés, B.** Mendekotasunen tratamenduan esku-hartze soziofamiliarak duen eragina: ahalmen prebentibo eta terapeutikoa. Nafarroako Gizakia Helbururen XXV. Urteurreneko Jardunaldia, "Mendekotasunei buruzko ikuspegi integral eta integratzaile baterantz". Iruñea, 2016ko maiatzaren 19a.

* **Burgui, F. e Illescas, C.** Nafarroan droga-mendekotasuna artatzeari buruzko Solasaldiak. Nafarroako Gizakia Helbururen XXV. Urteurreneko Jardunaldia, "Mendekotasunei buruzko ikuspegi integral eta integratzaile baterantz". Iruñea, 2016ko maiatzaren 19a.

* **Moreno, G.** Gaurkotasuna eta erronkak droga-mendekotasunen prebentzioan. Nafarroako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatea. Iruñea, 2016ko irailaren 9a.

* **Illescas, C.** Droga-mendekotasunen tratamendua Nafarroako Gizakia Helburun. Nafarroako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatea. Iruñea, 2016ko irailaren 9a.

* **Moreno, G.** Egoeraren azterketa, erronkak eta estrategiak adingabeekin eta gaztee-kin egindako droga-mendekotasunaren prebentzioan. Udalerria eta Mendekotasuna XVIII. Jardunaldietan egindako hitzaldia. Oviedoko Udala. Oviedo, 2016ko urriaren 5a.

* **Moreno, G.** Hurbil-hurbiletik prebenitzea: nerabeekin beren gauzei buruz hitz egiteko eta droga-kontsumoari aurre egiteko gaitasunak. Udalerria eta Mendekotasuna XVIII. Jardunaldietako Lantegia. Oviedoko Udala. Oviedo, 2016ko urriaren 5a.

* **Moreno, G.** Neurri alternatiboak betetzeko jardunbide egokia. Informazio/Prestakuntza-saioa komunitaterako onuragarriak diren lanei eta neurriei buruz. SGPMA. Iruñea, 2016ko urriaren 26a.

* **Moreno, G.** Lan-arloan alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoari aurre egitea eta heltzea. Masterra: Mendekotasunak, ikuspegi biopsikosoziala. Oviedoko Unibertsitatea eta Gizakia Helburu Elkarte. Madril, 2016ko azaroaren 25a.





ARGAZKI RALLYA IRUÑEA
Iñaki Bazterra

PRAKTIKETARAKO PLAZAK 2016/2017

ZENTROA	TITULAZIOA	PLAZAK	ORDUAK	PROGRAMA
Euskal Herriko Unibertsitatea	Psikologia Gradua	1	200	Aldatu
Euskal Herriko Unibertsitatea	Gizarte-Hezkuntzako Gradua	1	190	K. Terapeutikoa
ISEP	Psikologia Klinikoa Masterra	1	105	Aldatu
Hezitzaile-Eskola	Gizarte-Integrazioko Goi-teknikaria	1	540	Suspertu
Zaragozako Unibertsitatea	Psikologiako Gradua	1	200	K. Terapeutikoa
Salamankako Unib. Pontifizioa	Psikologiako Gradua	2	220	Suspertu / Aldatu

PRAKTIKETARAKO PLAZAK 2015/2016

ZENTROA	TITULAZIOA	PLAZAK	ORDUAK	PROGRAMA
Deustuko Unibertsitatea	Droga-Mendekotasunak Masterra	1	250	Aldatu
Zaragozako Unibertsitatea	Psikologiako Gradua	1	200	K. Terapeutikoa
UNED	Psikologiako Gradua	1	225	Suspertu
Euskal Herriko Unibertsitatea	Psikologiako Gradua	1	200	Aldatu
Euskal Herriko Unibertsitatea	Gizarte-Hezkuntzako Gradua	1	190	K. Terapeutikoa
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Gizarte-Hezkuntzako Gradua	1	200	Suspertu

20. TAULA 2016/2017 ikasturteko praktiketarako plazak eta 2015/2016 ikasturtearekiko aldea

8 Zerbitzuak

Zerbitzu orokorrak eta sostengu-zerbitzuak



ARGAZKI RALLYA LIZARRA
Conchi Llanos

Idazkari eta Administrazio Esparruak

Eskaeren erantzun azkarra emateaz gain, programa desberdinetako aktibitateen funtzionamendu egokirako dokumentazioa berri eta kudeatu egiten da.

I+G+B ZERBITZUA

2000. urtean jarri zen martxan eta honako helburu nagusi hauek ditu: emaitzen azterketa zentralizatu eta babestea; langileek ikerkuntza bultzatu eta sostengatzea, eta gure inguruko unibertsitateekin eta GHEaren gainerako zentroekin ikerkuntza-proiektuetan parte hartzea.

30

Errehabilitazioan dauden gaixoendako **harrera eman eta entzuteko espazioa da**. Fundazioak eskeintzen dituen zerbitzuak erabili dituztenentzat erreferentzia izan da hasiera-hasieratik.

Zuzenbidide- eta espetxe-gaietarako laguntza-arloa

Tratamenduan dauden eta auzi judizialak dituzten pertsonen laguntza du xede zerbitzu horrek. Horretarako, honako zerbitzu hauek ematen ditu:

- * Informeak egitea, eta kasuak defendatzeko eta auziek ahalik eta irtenbide egokiena izateko Epaitegiak eskatzen dituen dokumentuak ematea.
- * Prozesu judizialean, tratamenduan dauden pertsonen aholkua eta sostengua ematea.
- * Espetxeratzearen ordez, zigorra betetzeko moduak bilatzea eta sustatzea.

Bestalde, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren Iruñeko Presondegiko arreta zerbitzuak eraldaketa prozesu batean partehartzea eskeintzen die presoek, eta aukera izanez gero, presondegiaren ordez, neurri terapeutikoak betetzea.

2016an, banakako 202 elkarrizketa egin dizkiegu espetxean zeuden 52 laguni, Iruñeko Espetxean izandako 34 bisitalditan. Horren ondorioz, bost pertsona sartu dira Espetxetik Komunitate Terapeutikora, eta pertsona batek tratamendu ambulatorioa hasi du Aldatun.

Gizartean eta Lan-arloan Txertatzeko Zerbitzua

Zerbitzu horrek lan-munduan sartzen lagundu nahi die gure programetan tratamendua egiten ari diren eta langabezia dauden pertsonen, eta lan ezegonkorrak dituztenei, berriz, lana hobetzen. Horretarako, lau ekintza mota eskaintzen ditu:

- * Gaitasunen Diagnostiko eta Ebaluaziorako ekintzak
- * Lan-munduan orientazioa emateko eta lana bilatzen laguntzeko ekintzak
- * Lanaren aurreko trebakuntzarako ekintzak
- * Enpresekiko azterketa- eta bitartekaritza-ekintzak

Ekintza horiek bi programaren barruan gauzatzen dira:

- * Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonak Gizartean eta Lan-arloan Integratzeko Proiektua (INSOLA Proiektua), Europako Gizarte Funtzak finantzatua eta Gizakia Helburuko zentroetan garatua.
- * Gizarte Inklusio eta Gizarte Ekonomiarako Programa Operatiboa (POISES), Nafarroako Enplegu Zerbitzua - Nafar Lansarearen dirulaguntza-deialditik abiatua.

202

Banakako 202
elkarrizketa
presoekin

34

bisitaldi
Espetxera

5

sarrera
Komunitate
terapeutikora

1

tratamendu
ambulatorio
Aldatun

101

erabiltzaile
zerbitzuan

Honako hauek izan dira 2016an egindako jarduera nagusiak:

- * Guztira ziren 101 erabiltzailetatik, 90 gizarte- eta lan-arloko ebaluazio (89%) egin dira eta 80 ibilbide pertsonalizatu diseinatu (72%).
- * 220 jarraipen-elkarrizketa programatu dira eta, kasuen %91n, gauzatu egin dira.
- * Artatutako lagunen %83k enplegua bilatzeko puntuaren zerbitzua erabili du, enplegu-atarietan lan-eskaintzak bilatu eta izena emateko, curriculumak idatzi eta inprimatzeko eta lan-munduari buruzko informazioa lortzeko. Zerbitzuan parte hartu dutenen %77k uste du asebetegarria dela.
- * Hiru trebatze-lantegi egin dira:

90

gizarte- eta
lan-ebaluazio

- Gizarte Gaitasunen Lantegia: 40 saio egin dira; guztira, 80 presatuntza-ordu izan dira, eta 24 lagunek hartu dute parte.
- Estresa Kudeatzeko Lantegia: 5 saio egin dira; guztira, 10 ordu izan dira eta 8 lagunek hartu dute parte.
- Emakumeentzako talde espezifikoak: 6 saio egin dira; guztira, 12 ordu izan dira, eta 8 lagunek hartu dute parte.

Enpresetan Esku Hartzeko Zerbitzua

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak lan arloan alkohola edota drogen kontsumoaren aurrean esku-hartze zerbitzua eskaini nahi die enpresa eta erakundeei.

Alkohol eta droga kontsumoak lan arloan ondorio latzak ditu eta langilearen osasun, segurtasun eta enpresaren eraginkortasuna kinka larrian jarri. Hori dela eta, badira erreferentzia asko zeintzuek horrelako planak ezartzearen aldeko jarrera adierazten duten, kaltetutako guztien onerako baita.

Adikzioen tratamenduaren ikuspegitik, gaixoek bere lanpostura bueltatzeko itzaropena dutenean eta gainera enpresak lagundu egiten duenean, interbentzioaren pronostikoa nabarmen hobetzen da.

Uste dugu lan esparruan egiten diren interbentzio planak enpresa eta langileen ordezkariekin batera egin behar direla, teknikoekin koordinatuta eta langile kaltetuen konfidentziasun eta adostasun testu-guru batean.

77

%77k dio
gustura
gelditu dela
zerbitzuarekin

3

gaitze-lantegi

Horrela, Nafarroako Gizkia Helburu Fundazioak akzio ezberdinak burutzeko aukera eskeintzen die elkarte zein enpresei:

- * Lan arriskuen prebentzio planaren alkohol eta drogen gaineko enpresaren adostasuna gauzatzeko aholkularitza.
- * Sentsibilizazio eta prebentzio jardueren antolaketa.
- * Enpresako alor garrantzitsuetako eragileen formakuntza. Esaterako:
 - Gehiegizko kontsumo edo menpekotasun arazoetaz ohartzea.
 - Kaltetutako pertsonengana jo , arazoak onartu eta tratamendua motibatzeko.
 - Errekurtso espezializatuera deribatzea, tratamenduarekin bat egitea eta aukera izanez gero, lanpostura berriz itzultzea.
- * Langileen adikzio edo gehiegizko kontsumoaren arazoaren aurrean tratamendu trinko eta berehalakoa izatea.

2016an, informazio- eta orientazio-topaketak izan ditugu hiru udalekin, zazpi enpresarekin, sindikatu batekin eta 2 enpresa-erakunderekin, eta, Nafarroako bi udal nagusietakoekin, enpresa-hitzarmenen idazketan hartu dugu parte; lantokian alkoholaren eta/edo beste droga batzuen kontsumoari aurre egiteko eta heltzeko hitzarmen espezifikoak ziren. Toki-erakundeetako hitzarmen horiek udal-arloan lan egiten duten 1.500 lagunengan dute eragina.

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren eskarmentua bi forotan azaldu dugu Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo: Gizakia Helburu Elkartearen lan-prebentzioko estatu-foroan, Madrilen, eta "Drogamenpekotasunak lan-arloan" izeneko bigarren mintegi teknikoan (Mutualiak Donostian 2016ko martxoaren 16an antolatua), 32 enpresa eta erakunderen aurrean aurkeztutako txosten baten bidez.

Halaber, Nafarroan presentzia duen baina estatu osokoa den erakunde sindikal bati aholkua eman diogu eta, emaitza gisa, prebentzio-ordezkarientzako prestakuntza-ikastaro bat antolatu da Madrilen; autonomia-erkidego guztietako ordezkariek hartu dute parte.

Azkenik, 2016an, hiru langile artatu dira Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioko programetan; beren enpresa eta lantokietan drogen kontsumoari heltzeko ezarritako lankidetzak hitzarmenen emaitza izan da, gure erakundeak antolatutako jardueretan izan duten parte-hartzearen ondoren.

7

enpresak hartu dute parte zerbitzuan

1.500

langile hartzen dituzte hitzarmenek

1

sindikatuak hartu du parte zerbitzuan

3

langile artatu dira Programetan

9 Boluntariotza

Boluntariotza-plana



Hauxe da Boluntariotza Planaren helburu nagusia: boluntarioen inplikazio eraginkor eta solidarioa sustatzea, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren xedea eta balioak gauzatzeko. Boluntariotza hasieratik izan da oso erreferentzia garrantzitsua gure erakundearen eta bi arrazoi nagusi daude horretarako:

★ Drogekin arazoak dituzten lagunekiko **Elkartasunarekin dugun konpromisoa**; gizarte osoari zabaldu diogu balio hori eta herritar guztien konpromisoa eta konzientziazioa sustatu dugu.

★ **Erakundeak berak dituen beharrak**, horiek ase gabe ez bailitzateke posible beraren bideragarritasuna, eta, funtsean, honako hauek dira:

- Profesionalen lanarekiko **osagarriak diren zereginen** eustea; horiek, baliabide nahikorik ez dagoenez, ezin izango lirarteke egin.
- Programen **erabiltzaileen oinarritzko beharrak** (drogen abusu edo mendekotasunarekin lotutakoak) asetzea.

Gure Patronatua osatzen duten pertsonak ere boluntarioak dira, erakundearen estatutuetan

xedatzen den bezala ("Patronoaren kargua erabat doakoa izango da". NGHFn Estatu-tuetako 10. art.).


NGHFn boluntario gisa parte hartu nahi bada, gure egoitzan bertan, telefonoz edo gure web-gunean egin daiteke eskaera. Honako hauek bete behar dira boluntarioa izateko:

- * Fundazioaren helburuak onartzea.
- * Agindutako lanetarako motibazioa izatea.
- * Astia izatea.
- * Hartutako konpromisoa arduraz betetzea, NGHFn boluntarioa izateko aurreko pres-takuntza barne.

2015eko irailean, boluntariotza-plana hobe-tzeko inbertsio handi bat egin zen, Bolunta-riotzarako Koordinatzailea berriz ere lanean hasi baitzen. Horri esker, boluntario kopurua handitzeko eta haiek ematen dituzten zerbi-tzuen estaldura hobetzeko helburua bete dugu. Halaber, Nafarroako Gizakia Helburun izan-

dako esperientziaren asebetetzea hobetzea lortu dugu eta %90etik gora dago oraingoan ere.

2016an, boluntarioek emandako ordu ko-puruak nabarmen egin du gora, 25. urteu-rreneko ekitaldietan izandako inplikazio izugarriari esker; hor, protagonismo eta parte-hartze handia izan dute.



17. GRAFIKOA
Boluntario kopurua NGHFn


ZEREGIN OSAGARRIAK?	PERTSONEN OINARRIZKO BEHARREI ARRETA EMATEA
Harrera Zerbitzua	Familia-laguntzarik ez duten pertsonen espesketan edo ospitalean lagun egitea.
Telefono bidezko arreta (telefonogunea)	Harrera-fasean edo KTan sartzeko prestakuntzan lagun egitea.
Laguntza logistikoa erosketetan eta garraioetan	GH-KTptik gestioak egitera atera behar dutenean lagun egitea (medikuarengana, administrazio-tramiteak, eta abar)
Laguntza teknikoa arlo espezializatuetan (adibidez, informatikan, legearen arloan edo komunikazioan)	Aisialdirako eta astialdirako jarduerak antolatzea
Patronatuan parte hartzea, Fundazioaren ordezkariak izatea eta baliabideak bilatzea.	Helduen Hezkuntzan laguntzea
Bestelako beharrak	Institutuetan arazoak dituzten nerabeei eskola-laguntza ematea
	Bestelako beharrak

TABLA 21 NGHFn boluntarioek betetzen dituzten behar nagusiak


2016an Boluntariotza Planean egindako ekintzen artean, honako hauek dira azpimarratzekoak.

- * Gure 25. urteurrenak ospatu izanak boluntarioen parte-hartze handia ekarri du eta, halaber, helburu batzuk betetzea zaildu egin digu.
- * 25. urteurrenako batzorde ludiko-sozialean hartu dute parte: bileretara deitu zaie eta ekitaldi batzuk antolatzeko zenbait behar agindu zaizkie. Egin diren ekitaldi guztien gauzatzean ere parte hartu dute.
- * "Borondatezko lankidetzaren konpromisoa" biltzen duen kontratua diseinatu da, boluntariotzaren lege berriak xedatzen duen bezala.
- * 25. urteurrena dela eta egin diren elkarrikerketak batzuetan hartu dute parte. Guk dakigula, Nafarroan ez da izan boluntariotzarekin zerikusia duen jardunaldirik, eta ez dugu inolako gonbidapenik jaso.
- * Prestakuntza-beharrei buruzko formulario bat pasatu dugu, eta, haren emaitzekin, urteko prestakuntza-plana sortu da.
- * Fundazioari buruzko jarduerari eta berriei buruz, etengabekoa izan da haiekiko harremana, bai posta elektronikoz, bai whatsapppe. 2016tik, Gizakia Helburu Elkarteak hileroko argitaratzen duen buletin elektronikoa ere jasotzen ari dira.
- * Beren parte-hartzea eskatu duten inkestaren emaitzak jakinarazi zaizkie, bai tokikoak, bai estatukoak.
- * Oinarrizko prestakuntza-saioak egin dira, baita denen arteko topaketa-jardunaldi bat ere.

* Boluntarioek Gizakia Helburu Elkartearen Plan Estrategikoari buruzko saioan hartu dute parte.



18. GRAFIKOA Boluntarioen asebetetze-indizea (itemen batezbestekoa)



19. GRAFIKOA Boluntarioek emandako ordu kopurua



Datuak 10

Datu ekonomikoak eta diru-laguntzak

2016ko ustiapen-kontua

GASTUAK	EUROS
KANPO-ZERBITZUAK	443.702,44
LANGILEEN GASTUAK	1.284.120,01
AMORTIZAZIOAK	8.301,87
PRESTAKUNTZA	9.755,79
Gastuak, guztira	1.745.880,11

SARRERAK	EUROS
NAFARROAKO GOBERNUA	
NAFARROAKO OSASUN-ZERBITZUA	865.240,66
FORU-PLANA	25.999
GIZARTE-POLITIKAK	12.500
BOLUNTARIOTZA	11.525,46
POISES PROIEKTUA	26.425,87
INSOLA PROIEKTUA	42.001,97
IRUÑEKO UDALA	9.889
25. URTEURRENAREN SARRERAK	39.694,96
LABORAL KUTXA	5.000
RURAL KUTXAK	10.000
LA CAIXAREN GIZARTE-EKINTZA	4.000
CAN/ CAIXA FUNDAZIOA	98.800
ERABILTZAILEAK	376.282,55
CARITAS ALOKAIUENGATIK	120.200,40
PARTIKULARREN EMAITZAK	31.526,8
EMAITZAK GAUZATAN	15.744,9
BESTE UDAL BATZUK	2.844
PREBENTZIO-LANTEGIAK	14.261
BESTELAKOAK	7.663,93
Sarreak, guztira	1.719.600,50
Emaitza	-26.279,61

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK 2016



Unión Europea
Fondo Social Europeo
"El FSE invierte en tu futuro"

Nafarroako Osasun Zerbitzua/ Osasunbidea
Gizarte Politiken Departamentua
Hezkuntza Departamentua
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
Nafarroako Enplegu Zerbitzua – Nafar Lansare Burlatako Udala
Arangurengo Udala
Uharteko Udala
Los Arcoseko Udala
Orkoiengo Udala
Izarbeibarreko Mankomunitatea
Erlijioso-kongregazioak:

- Salestarren IO
- Pauldar Aitak
- Karitatearen Mesedetakoak

For Kristal-denda
Arrasate Okindegia
Josetxo Charral Frutak eta Barazkiak
Logisva Power SM
Lacturale
Postres tradicionales Ulzama
El Caserío de Tafalla
La Milla (Kírola eta aisialdia)
Hiru-Herri Atletiko Taldea
Paz Ziganda Ikastola
Intersport Irabia
Iriguíbel Harategiak

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa honako honen partaidea da:



Erakunde honek honako aitortzen hau jaso du:





Fitxa teknikoa 11

EZAUGARRI OROKORRAK

Titularra
Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa

Presidentea
José María Jiménez Nespereira Jn.

Programen Zuzendaria
Alfonso Arana Marquina Jn.

Lurraldea
Nafarroako Foru Komunitatea

LANGILEAK (31-12-2016)

Kontratuak
40

Boluntarioak
55

EGITURA ETA HORNIKUNTZA

Egoitza eta Komunitate Terapeutikoa
Iruñea Etorbidea, 59
31200 Lizarra
Tel: 948 55 29 86

Gizarte Egoitza eta Egoitza Nagusia
Zaragoza Etorbidea, 23
31005 Iruñea
Tel.: 948 291 865
Fax: 948 291 740

info@proyctohombrenavarra.org
www.proyctohombrenavarra.org

- Zerbitzu Nagusiak
- ALDATU: Mendekotasunak Artatzeko Zentroa
- Hasierako diagnostikoak
- Gizarteratzea
- Harrera Zerbitzua (Komunitate Terapeutikoko Prestatzea eta Motibatzea)
- SUSPERTU Programa

Gure proiektuan parte hartu nahi duzu?



Deitu iezaguzu:
948 291 865



LAGUNDU

Nahi izanez gero, ekarpen solidario bat egin dezakezu, bazkide eginez edo aldian behineko ekarpen bat eginez, eta, hala, gure proiektuaren finantzazioan lagundu dezakezu.



PARTE HARTU

Zure denbora eta zure lana izan daitezke zure ekarpenik garrantzitsuenak. Horregatik, gu ezagutzeko eta Nafarroako Gizakia Helburu Proiektuaren boluntario egiteko aukera ematen dizugu, gure jardueretako batean lagundu dezazun.

Edo bisitatu gure webgunea:
www.proyctohombrenavarra.org

1.
25. urteurreneko Txostena
eta Pentsaurrekoa.
Iruñea, 2016ko martxoaren 9a.



2.
Erakusketa ibiltaria:
Gizakia Helburu 25 urtez
Nafarroan.
Honako leku hauetan: Iruñea,
Tutera, Lizarra, Tafalla,
Zangoza, Elizondo, Burlata,
Atarrabia eta Uhartea.



3.
Jardunaldi Teknikoa
NUPen; "Droga-mendeko-
tasunari buruzko ikuspegi
integral eta integratzaile
baterantz". 120 profesiona-
lek hartu zuten parte".
Iruñea, 2016ko maiatzaren 16a.

4.
Ibilaldi osasungarria
Argan barrena; 700 parte-
hartzaile.
Iruñea, 2016ko maiatzaren 15a.

5.
Esker ona adierazteko
Ekitaldia: erakundeei,
patronatuko kideei,
erabiltzaileei eta haien
familiei, enpresa
laguntzaileei eta
boluntarioei.
Medikuen Elkargoa, 2016ko
ekainaren 10a.



6.
Javier Sádabarekin
Solasean.
Civican. 2016ko urriaren 7a.

7.
Argazki Rallya
"Nafarroako Gizakia
Helbururen 25.
Urteurrena".
3 edizio egin dira: Lizarra
(irailaren 11n, 16 parte
hartzaile), Iruñea (urriaren
9an, 24 parte hartzaile), eta
Tutera (urriaren 23an, 15 parte
hartzaile).



2

7

6

8.

Herri Lasterketa.
Iruñea, 2016ko maiatzaren 15a.



8

9.

Basket Navarra Clubaren
Omenaldia.
(Basket Navarra eta Valladolid
taldeen arteko norgehiagoka,
azaroaren 29a).



9

10.

Indioiarraren
Lasterketa Mtb.
2016ko abenduaren 18a.



10

11.

Miguel Indurain Martxa
Zikloturistikoa.
2016ko uztailaren 23a.



11